



**EBAZPENA, 2017KO UZTAILAREN 5EKOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, LAU LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA BEHIN BETIKOZ EBATZI, ETA HEZKUNTZA IKUSKARITZAN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETEZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA SORTZEN DUENA.**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko maiatzaren 11ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen Hezkuntza Ikuskaritzan lau lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko. Deialdia behin-behinekoz ebatzi egin zen 2017ko ekainaren 16ko ebazpenaren bidez, eta hiru eguneko epea ireki zen erreklamazioak aurkezteko.

Maria Lourdes Agustina Irastorza Uriak jakinarazi digu akatsa zegoela bere izen-abizenetan Maria Lourdes Irastorza Egia bezala agertu zelako, eta zuzentzeko eskatu du.

Joseba Eguren Garayek uko egin dio esleitutako lanpostuari, beraz prozesutik kanpo geratu da; horren ondorioz lanpostu hori esleitu behar zaio ordezkoen zerrendan dagoen, eta Bizkaiko lanpostuak eskatu zituen hurrengo hautagaiari, Pilar Tomás Vicenteri.

Hautagai hauek aurkeztu dute erreklamazioa: Bittor Lasa Beitia, Yolanda Trabudua Uriarte eta M<sup>a</sup> Pilar Tomás Vicente. Balorazio-batzordeak aztertu eta ebatzi ditu erreklamazioak, I. Eranskinean jasota daude.

Deialdiaren zortzigarren oinarriak dio Balorazio-batzordeak behin betiko proposamena helaraziko diola Langileak Kudeatzeko zuzendariari eta berak jendaurrean jarriko duela behin betiko ebazpena, Hezkuntza Saileko web-orrian.

Horiek horrela, baremazio-batzordeak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, haxe,

**EBATZI DUT**

**Lehena.**- Aukeratzea ondoren aipatzen diren hautagaiak 2017ko maiatzaren 11ko ebazpenaren bidez deitu ziren Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak zerbitzu eginkizunetan betetzeko:

**GIPUZKOA:**

- JOSÉ MARIA ARAKAMA KARRERA
- MARIA LOURDES AGUSTINA IRASTORZA URIA

**BIZKAIA:**

- MERCEDES MARTÍNEZ DE LOS RÍOS
- PILAR TOMÁS VICENTE



**Bigarrena.-** Deialdiaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, hurrengo lau ikasturtetan Hezkuntza Ikuskaritzan hutsik gera daitezkeen lanpostuak betetzeko zerrenda ondorengo izangaiek osatuko dute behin betikoz, lortu duten puntuazioaren arabera ordenaturik:

1. ALICIA EPELDE MURGUIA
2. VIRGINIA MOSQUERA LACALLE
3. MARTA IRAZOQUI AGUIRRE
4. JOSEBA IDOYAGA VIZCAYA
5. MARIA EUGENIA ESTEBAN PIUDO

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea II. Eranskinean jasotzen den hautagaien behin betiko puntuazioarekin.

### ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren leko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 5a

KONRADO MUGERTZA URKIDI  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



## ANEXO I

### ERREKLAMAZIOAK

#### **BITTOR LASA BEITIA**

**Eskatu du:** Memoria berraztertzea.

**Erantzuna:** Memoria berraztertu egin da eta emandako puntuazioa mantentzen da.

#### **YOLANDA TRABUDUA URIARTE**

**Eskatu du:** Emandako kalifikazioak berraztertzea eta prozesua gainditu dutenen zerrendan sartzea.

**Erantzuna:** Memoria berriro irakurri eta elkarrizketan hartu ziren notak birpasatu ondoren, emandako puntuazioa mantentzen da.

#### **MARIA PILAR TOMÁS VICENTE**

**Eskatu du:** Hizkuntzen ataleko puntuazioa berraztertzea. Aurkeztu zuen titulua B2rekin baliokidea delako.

**Erantzuna:** Onartua. Puntuazioa aldatu egin da eta puntu 1 kontatu zaio hizkuntzen atalean.

